

## **HAUSTURAK 2011**

### **DONE JAKUE**

Erronka berri batekin abiatu dugu 2011ko lehen Hausturak hau. Orain artean eta oraindik ere Jaizkibel bada Hausturak egonaldien hartzaile nagusi, oraingo honetan Done Jakue bidea eginez “haustea” otu zaigu. Bi egonaldi moten arteko ezberdintasunak nabarmenak dira. Jaizkibelen, isolamendua handiagoa izateaz gainera, bizimodua askoz basatiagoa eta primarioagoa da. Done Jakue bidea aldiz, antolatua dago (loa, jana, higiena...) eta harremanetan askoz aberatsagoa da, ez gara hainbeste isolatzen. Bi kontzeptu ezberdin, bi haustura mota, baina hausturak azken finean.

Done Jakue bidearekin izan dugun lehen esperientzia hau, oso interesgarria izan dela esango nuke. Esfortzuaren eta norbere kabuz ibilian mugitzearen sentsazio gogor eta atseginarekin bat, bideak jende asko eta ezberdina ezagutzeko aukera eman digu. Hortaz, elkarbizitza ez da gurera mugatu, baizik eta aterpetxe bakoitzean topatzen genuen jendartera. Gazte bakoitzaren bizipen eta haustura pertsonaletik abiatuta, norberak bere bidea egin du eremu berri honetan. Eta egun hauetan transmititu diguten bizipoza atsegina egin zaigu, momentu zail eta gogorrekin tartekatuta ohikoa den bezala.

Aipatu nahiko nuke, gazteak elkarren artean ezezagunak izanik ongi moldatu direla euren artean eta hori, nola ez, eskertzekoa dela. Hala ere, printzipiozko giro on honek ez du ekarri partaide denek proposatutakoarekin bukatzea. Gazteetako batek, alde egitea erabaki zuen eta honek taldekideengan halako haserrea eta nahigabea sorrarazi zuen. Talde kohesioa eta proiektua bera kolokan egon ziren momentu batez. Gazteek beraiek aurrera egitea erabaki zuten, proiektua indarberrituz. Eskerrak!

Done Jakue bideak, bidea egiten ari diren errromesen izpiritu anitzak transmititzen dizkizu. Errromesen artean sortzen den giro lagunkoi eta anaiarteko hori nabarmenduko nuke, batzuetan nire naturaltasunetik haratago doana. Honek guztiak, gazteekin proiektu hau gauzatzea, Hausturak alegia, oso interesgarri egiten du.

Etorkizunari begira, hausturak eredu berri bat, beste bat.

Imanol Ikardo Enparan